

2012KO IRAILAREN 7AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA	ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 7 DE SEPTIEMBRE DE 2012.
=====	=====
<u>BILDUTAKOAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
<u>ALKATE LEHENDAKARIA</u>	<u>ALCALDE PRESIDENTE</u>

Imanol Landa Jauregi

<u>ALKATEORDEAK</u>	<u>TENIENTES DE ALCALDE</u>
----------------------------	------------------------------------

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Koldo Iturbe Mendilibar (EAJ-PNV)
Joseba Arregui Martínez (EAJ-PNV)
Ana Helguera Líbano (EAJ/PNV)

<u>ZINEGOTZIAK</u>	<u>CONCEJALES</u>
---------------------------	--------------------------

Elena Coria Yanguas (EAJ/PNV).
Alvaro González Pérez (EAJ/PNV).
Kepa Miñambres Llona (EAJ/PNV).
Itziar Epalza Urkiaga (EAJ/PNV).
Marisa Arrue Bergareche (PP).
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).
Jesús Toca Toña (PP).
Raquel González Díez-Andino (PP).
Iñaki Gamero Delgado (PP).
Javier Ruiz Egaña (PP).
Jone Ruiz De Eguilaz Salazar (PP).
Fco. Javier Elorza Hormaeche (PP)
Ana Basilio Carnicer (PP).
Maitane Nerekan Umaran (BILDU).
Bingen Mirena Saitua Iruretagoiena (BILDU).

Miren Arantza Gutiérrez Paz (BILDU).
Roberto Martín Prieto (BILDU).
Luis José Almansa Rubio (PSE-EE (PSOE)).
Agustín Ruiz Estivariz (PSE-EE (PSOE)).

IDAZKARI NAGUSIA

SECRETARIO GENERAL

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Imanol Landa Jauregi jauna dela, egun horretako bederatzietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ezohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira.

Alkate jaunak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaiaren Zerrenda barruan jasota dagoen gaiari heldu diote. Emaiza honakoa izan da:

101.- PARKEAK ETA LORATEGIAK ZAINDU ETA MANTENTZEKO ZERBITZUEN KONTRATUA LUZATZEA.

Proposamena irakurri ondoren, Joseba Arregik hitz egin du; Getxoko pasealekuak eta berdeguneak udalerraren ezaugarria eta bizilagunek oso ondo baloratzen dute zerbitzua dela adierazi du. Jarraian, kontratuaren edukia azaldu du; kontratu hori 4.000 bat zuhaitz dauzkan 500.000 metro koadro baino gehiagoko azalera bati dagokio eta bidea sasiz garbitzea, loreak landatzea eta abar ere jasotzen dira; zeregin horiek 40 bat laguni

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión extraordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar el asunto incluido en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

101.- PRÓRROGA DEL CONTRATO DE SERVICIOS DE CONSERVACIÓN Y MANTENIMIENTO DE LOS PARQUES Y ZONAS AJARDINADAS.

Tras darse lectura a la propuesta interviene Joseba Arregi que manifiesta que los paseos y zonas verdes de Getxo son una seña de identidad y es un servicio muy bien valorado por los vecinos. A continuación explica el contenido del contrato que afecta a una superficie de más de 500.000 metros cuadrados en los que se sitúan más de 4000 árboles, incluye también labores de desbroce de estradas, plantaciones

ematen diote lana urte osoan zehar eta beste hamaika laguni, aldi-baterako lanen bitartez. Kontratua luzatzeko planteamendua justifikatzeko, adierazi du etorkizunean kontratu horrengan eragina izango duen bide-garbiketari buruzko baldintza berriak lantzen dihardutela, baita egungo egoera ekonomikoari egokitutako baldintzak idatzi ahal izateko ere. Emandako arrazoiak direla eta, lizitazioa aurreratzea ez zela komenigarria irizten dio eta, gainera, ez lukeela kontratuaren kostua murriztuko, izan ere, laneskua kontratuaren kostuei dagokienez, funtsezko elementua izanik, aplikatu beharreko eta 2013. urtera arte indarrean dagoen hitzarmen kolektiboak zehaztuta dago.

Talde popularraren izenean, Eduardo Andradek esan du ez dutela bozkatuko proposamen hori eta idatziko diren plegu berrien zain geratzen direla; gainera, plegu horiek prestatzen parte hartzeko euren borondatea azaldu du.

Bilduren izenean, Maitane Nerekanek gogorarazi du argi azalduta geratu zela uztaileko osoko bilkuran zerbitzu publikoak azpikontratatzeari buruzko bere taldearen iritzia zein den. Gogorarazi duenez, bere taldearen iritiz, zenbateko ekonomiko garrantzitsua duten hiritarrentzako oinarritzko zerbitzuak ez lirateke azpikontratatu behar eta horretan oinarritzen da euren iritzia; izan ere, azpikontratazioak lanaren kolokatasuna eta zerbitzuaren kontrolaren galera dakartza eta, beraz, zerbitzuak kalitatea galtzen du. Era berean, ezinezkoa da zerbitzuaren langileen aldetiko hizkuntza arretari dagozkion alderdiak kontrolatzea. Estatua ezartzen ari den neurrien jakitun da; neurri horiek zerbitzuak

de flores, etc., labores que ocupan a 40 personas durante todo el año y a otras 11 personas de forma temporal. Justifica el planteamiento de prórroga ya que se está trabajando en unos nuevos pliegos de limpieza viaria que afectarán a este contrato en el futuro, así como también para poder redactar un pliego adaptado a la actual situación económica. Estima que adelantar la licitación no era conveniente por las razones manifestadas y además no abarataría el costo del contrato, ya que la mano de obra que es elemento fundamental de coste del mismo está determinada por el convenio colectivo que le es de aplicación y que está vigente hasta el año 2013.

Eduardo Andrade, en nombre del grupo popular, indica que se van a abstener frente a la propuesta y quedan a la espera de los nuevos pliegos que se vayan a redactar, en los que manifiestan su voluntad de participar.

Maitane Nerekan, en nombre de Bildu, recuerda que la postura de su grupo acerca de la subcontratación de servicios públicos quedó claramente manifestada en la sesión plenaria del mes de julio. Recuerda que dicha postura se basa en que, en opinión de su grupo, los servicios básicos de trascendencia ciudadana con un importe económico importante no deben ser subcontratados, ya que la subcontratación conlleva precariedad laboral y la pérdida del control del servicio con lo cual éste pierde calidad, así como también se imposibilita, de hecho, el control de la atención lingüística por parte del personal del servicio. Es consciente de las normas que Estado está imponiendo, que son contrarias a posibilitar la asunción

zuzenean bere gain hartzearen aurkakoak dira, enpleguaren eskaintza publikoak egitea galarazten baitute, baina talde politikoek euren iritziak, keinu eta jarduerak azaldu behar dituztela irizten dio, zerbitzuak publikoak izateko bidean aurrerapausoak emateko helburuarekin. Kasu konkretu honetan, gaia ebazteko ez-ohiko osoko bilkura deitu izana kritikatu du, horrek zinegotziei, itzulpen zerbitzuari eta abarri dagozkien dieten ordainketen kostu gehigarriak baitakartza. Puntu hori uztaileko osoko bilkurako gainerrendan sartuta zegoen eta alkateak zerrendatik kendu zuen; horrek agerian uzten du kudeaketa txarra. Pentsatzen du uztailetik hona akordioaren batera iritsiko zirela talde politikoren batekin eta eurek akordio horietan ez dutela parte hartu eta ez dituztela ezagutzen adierazi du.

Luis Almansak adierazi du talde sozialistak proposamenaren alde bozkatuko duela, gobernu taldeak emandako arrazoiengatik eta koherentziagatik, izan ere, 2006ko ekainean kontratuaren esleipenaren alde bozkatu zuten eta kontratuan haren luzapena aurreikusten zen; alde bozkatzearen beste arrazoi bat da dagoeneko plegu berria lantzen ari direla.

Botoetara jo da eta honako emaitza lortu da: aldeko 11 boto, EAJrenak eta PSE-EErenak; aurkako 4 boto, Bildurenak eta 9 abstentzio, PPrenak.

Ondorioz, eta Ogasuna, Kontuak, Sustapen Ekonomikoa, Giza Baliabideak, Gazteria eta Euskara Batzorde Informatzaileak proposatuta, honakoa erabaki zen:

directa de los servicios, ya que impiden la celebración de ofertas públicas de empleo, pero estima que los grupos políticos deben de plantear sus opiniones y gestos y actuaciones en orden a avanzar en la línea de la publicación de los servicios. Critica, en este caso concreto, que se haya convocado un pleno extraordinario para resolver esta cuestión porque ello supone un coste añadido de pagos de dietas de asistencia a concejales, servicios de traducción, etc., cuando este punto estaba incluido en el orden del día del pleno de julio y posteriormente fue retirado por el alcalde, lo que evidencia una mala gestión. Supone que de julio a esta fecha se habrá llegado a algún tipo de acuerdo con algún grupo político, acuerdos en los que no han participado y desconoce.

Luis Almansa manifiesta que el grupo socialista va a votar a favor de la propuesta por las razones indicadas por el equipo de gobierno y por coherencia, ya que en junio del año 2006 votaron a favor de la adjudicación del contrato, que preveía la prórroga, y también porque ya se está trabajando en un nuevo pliego.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 11 votos a favor PNV, PSE-EE; 4 votos en contra de Bildu y 9 abstenciones, PP.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda, Cuentas, Promoción Económica, Recursos Humanos, Juventud y Euskera se acordó:

LEHENENGOA: Getxoko udalerriko parkeak eta lorategi-eremuak kontserbatzeko eta mantentzeko zerbitzuen kontratua urtebetez luzatzea, 2012/09/11tik 2013/09/11ra. Zerbitzu hori 2006/06/30eko Udaleko Osoko Bilkuraren 92 zenbakidun Erabaki bidez SEGEMA, S.L. sozietateari (IFK: B9537770-1) esleitu zitzaion zeina, egun, Cespa Jardinería, S.L. deitzen den.

Zerbitzuaren luzapenaren zenbatekoa 2.229.192,54 euro/urteko da (BEZa barne).

BIGARRENA: Urtebetez luzatzea, 2012/09/11tik 2013/09/11ra, aurrekoaren osagarria den kontratua, lan bereziak eta hornidurak egitean datzana. Kontratu hori kontratista berdinari esleitu zitzaion Osoko Bilkuraren 2007/04/27ko 87 zenbakidun Erabaki bidez.

Kontratu osagarriaren luzapenaren zenbatekoa 224.810,34 €/urtean da, BEZa barne.

HIRUGARRENA: Adostutako kontratuaren luzapenari aurre egiteko beharrezko gastua baimentzea, zehazki, 2.454.002,89 euro.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du egun honetako bederatzia eta hamar minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

PRIMERO: Prorrogar por un año, desde el 11/9/2012 al 11/9/2013, el contrato de servicios de conservación y mantenimiento de los parques y zonas ajardinadas del municipio de Getxo, adjudicado mediante Acuerdo nº92 del Pleno municipal de fecha 30/6/2006 a SEGEMA, S.L., con C.I.F.: B9537770-1 (hoy Cespa Jardinería, S.L.).

El importe de la prórroga del servicio asciende a 2.229.192,54€/año, I.V.A. incluido.

SEGUNDO: Prorrogar por un año, desde el 11/9/2012 al 11/9/2013, el contrato complementario del anterior, consistente en trabajos especiales y suministros, adjudicado a la propia contratista mediante Acuerdo plenario nº 87 de fecha 27/4/2007.

El importe de la prórroga del contrato complementario asciende a 224.810,34 €/año, I.V.A. incluido.

TERCERO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a la prórroga contractual que se acuerda, por un importe total de 2.454.002,89 euros.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las nueve horas y diez minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.

